

PRENTSA OHARRA, OSAKIDETZA-OSASUNAREN EUSKAL ZERBITZUA ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2011.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Osakidetza-Osasunaren Euskal Zerbitzua Zuzenbide Privatuko Erakunde Publikoaren fiskalizazio txostena mamitu du, 2011ko ekitaldiari buruzkoa. Txostena Osokoaren kideek aho batez onetsi dute.

Fiskalizazio txostenak legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu eta kontabilitate, langileria eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere. Horrezaz gain, Osatek, SA fiskalizatu da.

Legezkontasunaren atalean Epaitegiak uste du Osakidetzak eta Osatekek zuzentasunez bete dutela ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia, txostenean bertan zehaztu diren hainbat akats salbuetsita.

Bada, Osakidetzaren kasuan eta kontratazioaren atalari lotuta, HKEEK adierazi du urratu egin dituela hainbatetan administrazioko kontratazioan buru egiten duten arauak eta esaterako, zenbait espedientetan -txostenean espediente-zenbakia eta zenbatekoa zehazturik daude- kontratuaren iraupen aldiak legezko gehiengo muga gainditu du edo iraupen aldia iraungia dela formalizatzen da; kontratua bertan behera uzteko kausa eragin da obrak ezarritakoa baino epe luzeagoan eteteagatik; luzapen jakin batzuetan aldaketak egin dira eta hasierako aurrekontua % 30 baino ehuneko handiagoan gehitu dute, lehia irizpideak urratuz; eta azkenik, publikotasun eta lehia printzipioa urratu da hainbat hornigai kontratu txiki modura izapidetzean.

Langileriari dagokionez, HKEEK 2011n Erakunde Zentralaren zenbait izapidetan jasotakoari jarraiki, hainbat produktibitate-osagarriren ordainketa azpimarratu du; horiek, ordea, ez zeuden aurreikusiak Osakidetzako langileen lan baldintzak arautzen dituen Erabakian.

Osakidetza eta Osateken Urteko Kontuei dagokienez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du bien gainean; salbuespen bakarra erakunde banari dagokionez, esanguratsuena Osakidetzari dagokiona izanik, izan ere, ez baititu egoeraren balantzean erregistratu zenbait langileren erretiro osagarrien kontzeptuko obligazioak, ez 60 eta 64 urte bitartean erretiroa hartzen duten langileen borondatezko erretiroagatiko saria ere; horrek guztiak, aktuario azterketa baten arabera, 2011ko abenduaren 31n 105,4 milioi euroren zenbatekoa egin du.

Berebat, HKEEK hainbat irizpen plazaratu ditu barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei dagokienez.